




DAGOENeko EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAU ESTABLEZIMENDUTATIK HIRUK BEZ-AREN AITORPENAK TELEMATIKOKI EGITEN DITUZTE

Gainera, erdiak baino gehiagok Administrazio Elektronikoa ere erabiltzen dute Gizarte Segurantzako kotizazioak tramitatzeko eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena egiteko

G.1 Euskal Autonomia Erkidegoan azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. 2000-2016.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

Guztira EAEko 144.957 establezimenduk, hau da, establezimendu guztien % 87,8k, alde batera utzita lehen sektorekoak, etxeko zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak, 2016an Administrazio Elektronikoa erabili zuten¹, zuzenean nahiz hirugarrenen bitartez². 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen kasuan, berriz, % 94,6k, Eustateko datuen arabera. Horren erabilera edo elkarrekintza askotarikoa da: informazioa lortzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedura edo izapideak oso-osorik izapidetzera


Azken 13 urteetako datuak jaso dira, eta bi aldi bereiz daitezke: 2000tik 2008ra bitartean, Administrazio Elektronikoaren erabilera izugarri hazi zen enpresen aldetik –bider zortzi baino zerbait gehiago–, bitartean, errolda ere 31.509 unitatetik goraxeago hazi zen. 2009 eta 2013 bitartean, krisi ekonomikoan

¹ Administrazio Elektronikoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.

² 2016ko bilketan, tramiteak eta prozedurak egin edo informazioa jaso euren zuzenean egiten dituzten establezimenduez gainera, ekintza horiek hirugarren batzuen bidez egiten dituzten establezimenduen datuak ere jaso dira. 2017koan (2016ko emaitzak) internet eduki gabe Administrazio Elektronikoa erabiltzen dutenak sartu dira.

murgildurik, aurreko aldiko saldo positiboaren parte handi bat galdu zen - 30.123-, eta Administrazioarekin harremana internet bidez egiten zutenen hazkundera mantsotu egin zen: azken bost urte horietan hazkundera % 7,3koa izan zen. 2013tik 2014ra 3.410 establezimendu gehiago izan dira Administrazio Elektronikoen erabiltzaile, hau da, urte arteko % 3,8ko hazkundera.

2015eko datuek haustura erakusten dute 2000-2014 seriearekin alderatuta: 25.355 establezimendu gehiago sartu dira (% 27,1 gehiago), metodologia-aldaketarengatik neurri handi batean. 2016an beste 26.173 izan ziren, % 22 gehiago, ia erdia Administrazio Elektronikoa erabili arren interneteko konexioa ez dukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotzen zaion metodologia-aldaketarengatik (guztira 14.727, hamar establezimendutatik bat). Beraz, metodologia-jauzia baztertuta, hazkundera nabarmena izango litzateke, % 9,6.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa


Administrazio publikoekin tramiteak elektronikoki egin behar dituzten establezimendu guztien artean (internet eduki zein ez), bostetik lauk, % 78,3k, hirugarrenengana jotzen dute kudeaketa elektronikoki egiteko, eta 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen erdiak -% 53,5ek-.

Kontuan izan behar da enpresek eta haien establezimenduek beren administrazio-kudeaketa batzuk zuzenean egin ditzaketela, eta, aldi berean, hirugarren batzuek ere ez ditzaketela beste batzuk egiteko: 10 enplegu edo gehiago dituztenen % 86k ere eurek egiten dituzte tramiteak zuzenean. Ziurrenik, erakunde horiek aro digitala baino lehenago hirugarrenen bitartez egiten zituzten kudeaketak oraindik ere elektronikoki egiten dituzte, establezimenduen tamaina eta bere ahalmen informatikoak edozein izanda ere.

Establezimenduen eroldaren saldoa nahiko egonkorra izan da azken urteetan; horregatik, dirudenez, Administrazio Elektronikoen erabileraren hazkundera


garrantzi handia izan dute aipatutako metodologia-aldaketek, baina horrez gain, administrazio publikoko sektoreen eta sektore ekonomikoen artean internet bidezko harremanek izan duten bilakaera positiboak ere bai.

G.2 . Establezimendu kopuruaren eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa.2000-2016. Δ%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2016. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2016. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

2015ean eta 2016an gora egin zuen Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen kopuruak, neurri handi batean internet nahitaez eduki gabe kudeaketak hirugarren batek egiten dituela erantzuteko aukera sartzeagatik; horrenbestez, aurreikusten diren tramite mota guztiek gora egin dute nabarmen.

Hala ere, aipatzekoak dira BEZaren aitopenenak: lau establezimendutik ia-ia hiruk –% 72,8k– 2016an bide telematikoak erabiliz egiten zituzten; beraz, ehuneko 20,8 puntuko jauzia egon da 2014 eta 2015 bitartean, eta 17,8koa azken urte horren eta 2016aren artean.

BEZaren aitopenenaren ostean, enplegatuen Gizarte Segurantzako kotizazioak eta Sozietateen gaineko Zergak agertzen dira rankingaren buruan: lehen tramite motak establezimenduen % 62,2k egiten dituzte, (ehuneko 17,6 puntu gehiagok), eta bigarren motakoak % 56,7k (ehuneko 12,5 puntu gehiago) 2015 eta 2016 alderatuta.

Enpresen % 37,3k prozedurak oso-osorik tramitatzea lortzen du. Alderdi hori da Administrazio Elektronikoaren koskarik handiena, eta urtebetean hazkundera puntu eskas batekoa izan da.

Kasu askotan, tramiteak nahitaez internet bidez egin behar izaten dira; horren ondorioz, Administrazio Zentralaren erabiltzaileen kopurua ehuneko 16,1

puntuak igo da azken urtean Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduen artean, % 67,9ko tasarekin.

Hala ere, Administrazio Elektronikoak foru-aldundietan du oraindik ere eraginik handiena; % 73,4ko erabilera du, eta ekuneko 8,6 puntuko hazkundera izan da 2015arekin alderatuta.

Esan daiteke tramiteak telematikoki egiteko ohitura eta/edo zailtasunak eraginda, establezimendu askok hirugarrenengana jo dutela tramiteak egin ditzaten haien izenean: udal-zergez bestelako aitortpenak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak.

Azken bosturtekoari dagokionez, lehenengo aldiz gora egin du nabarmen Administrazio Elektronikoaren erabilera, udalekin harremanetan jartzeko: aztertutako azken urtean partaidetza-tasek gora egin dute ehuneko 6,5 puntuak, baina kanal hori lau establezimendutik batek baino apur bat gehiagok soilik erabiltzen dute –% 27,5ek–.

Eusko Jaurlaritzaren eskaintza elektronikoa erabiltzen duten enpresen zorroak igoera apala izan du, ehuneko 3,1 puntuak, eta zentsuaren erditik hurbil geratzen da, % 41,8rekin. Europar Batasunarekiko harreman telematikoak egonkorrak dira oraindik ere; establezimendu erabiltzaileak % 7,2 dira.

TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2016. %


	Guztira						Eusko Jaurlaritza						Foru aldundiak						Toki-erakundeak					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	47,2	50,3	54,5	57,0	71,8	87,8	34,3	33,3	36,2	36,5	38,7	41,8	39,4	43,4	45,1	46,8	64,8	73,4	20,1	21,6	22,3	21,7	21,0	27,5
Informazioa lortzeko	41,7	43,8	44,3	46,5	52,2	58,0	30,8	31,0	32,9	33,2	31,3	37,0	32,1	35,5	36,7	37,7	43,2	47,2	17,7	20,0	20,7	20,3	18,2	24,7
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	39,3	40,7	42,5	44,7	53,2	57,1	24,9	26,1	27,5	27,9	29,5	33,6	30,1	33,1	35,5	35,5	43,2	46,3	13,1	15,6	15,8	15,8	14,3	21,0
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	32,0	33,9	31,3	33,7	42,7	45,3	19,4	19,9	19,8	20,3	22,3	23,8	24,3	27,2	26,0	26,2	34,8	35,8	8,1	10,0	8,9	9,3	10,2	12,7
Administrazio prozedura bat modu erabat	25,3	22,5	20,3	23,5	36,4	37,3	13,6	11,8	11,2	12,6	16,7	18,7	18,0	16,5	14,4	16,6	27,6	26,8	5,7	4,9	4,5	4,9	6,9	8,8
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	6,0	5,6	5,2	5,3	10,0	9,8	3,2	2,8	2,9	2,9	4,4	4,5	3,1	3,5	3,0	3,1	6,5	5,5	1,6	1,6	1,5	1,5	1,7	1,6
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	17,3	27,1	28,4	28,2	44,2	56,7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	21,3	30,6	29,5	30,2	45,4	62,9	-	-	-	-	-	-	18,7	26,2	25,2	25,5	40,3	50,3	-	-	-	-	-	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ)	25,1	34,4	34,7	34,2	55,0	72,8	-	-	-	-	-	-	22,3	29,6	28,2	28,7	51,0	58,4	-	-	-	-	-	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,4	4,6	4,9	5,4	9,3	9,2	-	-	-	-	-	-	0,9	0,1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,8	1,7	2,9	6,1	0,6	0,4	0,4	0,4	0,8	0,6	0,9	1,2	0,9	1,0	1,6	4,6	0,2	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4

TAB. 4.b Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2016. % (Jarraip.)

	Administrazio Zentrala						Europar Batasuna eta beste batzuk					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	28,6	35,9	39,6	39,2	51,7	67,9	6,0	5,1	4,9	6,2	7,4	7,2
Informazioa lortzeko	18,9	17,3	21,2	22,4	20,6	24,4	5,2	4,4	4,0	4,7	5,7	5,6
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	15,4	13,5	17,2	18,3	17,4	21,5	3,3	2,4	2,6	3,5	3,2	3,5
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	12,2	10,9	13,2	14,2	14,3	17,2	2,3	1,8	1,9	2,7	2,0	2,8
Administrazio prozedura bat modu erabat	9,5	8,1	8,0	9,5	12,2	13,1	1,7	1,5	1,5	1,7	1,7	2,0
Lizitazio-elektronikoko sistema batean	2,5	1,8	2,5	2,4	3,0	3,2	0,5	0,4	0,8	0,8	0,9	1,0
Langileen pertsonen kotizazio sozialak	17,0	26,8	28,1	27,8	43,3	56,1	0,5	0,4	0,3	0,5	1,2	0,9
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	4,7	7,0	11,0	11,1	9,5	17,1	0,3	0,1	0,0	0,0	0,4	0,5
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	5,6	7,2	13,1	11,5	9,5	18,1	0,2	0,1	0,0	0,4	0,5	0,7
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak	4,4	4,5	4,7	5,2	9,1	8,8	0,2	0,1	0,5	0,5	0,5	0,8
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,4	0,6	0,5	0,6	1,0	1,1	-	-	0,2	0,1	0,1	0,3


Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

G.4.1.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2016.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

G.4.1.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2016.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduei buruz, esan behar da ziurrenik joera ekonomikoa aldatzen ari dela: sei urtean establezimendu kopuruak behera egin du (2009 eta 2015 bitartean 1.991 enpresa gutxiago izan


ziren –sorreren eta suntsipenen arteko diferentzia-); horren ostean, 2015etik 2016ra bitartean joera alderantzizko bihurtu da eta hazkunde garbia 157 unitatekoa izan da, % 1,3. Hobekuntza horrek zuzeneko ondorioa izan du Administrazio Elektronikoen erabileran: azken hiru urteetan adierazle horrek jaitsierak izan zituen, baina erabilerak talde horretan gora egin du % 6,6.

Kasu horretan ere banaketa ez da simetrikoa, administrazio motaren arabera: Administrazio Zentralak erabiltzaileen % 83,3 hartzen du, eta ehuneko 4,6 puntuko gorakada izan du 2015arekin alderatuta. Foru-aldundiak erabiltzaileen ehuneko apur bat txikiagoa da Administrazio Zentralarena baino –% 80,5–, eta haien tasak ia-ia ez du aldaketarik izan. Europar Batasunaren partaidetza hiru hamarren eskas igo da, eta 10 enplegu edo gehiago dituzten enpresen bosten batera heltzen da doi-doi.

Toki erakundeek, establezimenduen kopuru osoaz ari ginenean ikusi zenez, geruza horretan ere hobera egin dute; ehuneko 2,2 puntu gehiago eta erabiltzaileen % 43,1.

Eusko Jaurlaritzak azken urteetan joera negatiboa hautsi du: ehuneko 2,3 puntuko hazkundea izan du, eta 10 enplegu edo gehiago dituzten enpresen % 71ra heltzen da; hain zuzen ere, tasa hori 2013an lortu zuen.

G.4.2. Establezimenduak, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokak, eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena, administrazio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2016. Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Administrazioa


Lehen sektoreko establezimenduen heren batek administrazio publikoekin harremanetan jartzeko bide elektronikoak erabiltzen ditu, eta 2015ean bostetik lau ziren 10 enpleguko edo gehiagoko geruzan³

2012an Administrazio Elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2; iguera hori hainbat faktorek azaltzen dute.

Lehenik, aztertu nahi den biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustiategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jarduera nagusi zutenak soilik ardatz hartuta.

Aldaketa horri zati batean lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan interneten garrantzia, zenbateraino sartu den, 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

Azkenik, baina garrantzitsua hau ere, hirugarrenen bitartez egindako tramitazioa neurtzen da: guztien artean lautik hiruk $-\% 76,8k-$ administrazioarekiko betebeharrak zeharbidez betetzen dituzte. Hala ere, ia-ia erdiek interneteko teletramitazioak euren kabuz egiten dituzte.




Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizaritari buruzko inkesta-ESIP

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak 2015ean 137 ustiategik osatutako klub murriztua ziren; bost kasutik lautan $-\% 84,3n-$ kontratatutako erakundeak baliatzen zituzten euren administrazioko tramiteak egiteko, batezbestekoa baino ehuneko 7,5 puntu gehiago. Egoera hori gertatzen da ustiategi ertain eta handi horiek konplexuagoak direlako eta administrazioekiko

³ Administrazio Elektronikoa erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi metodologia-aldaketarengatik: 2015etik aurrera, jarduera nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jarduera hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarrenen bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.

harreman-bolumen handiagoa dutelako. Dena dela, hiru urtean, geruza horretan Administrazio Elektronikoa erabilera-tasak gora egin du ehuneko 4 puntuak.

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2015.%




Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

Lehen sektoreak 2015. urtean harreman elektronikoetarako gehien erabili zuen administrazioa foru-administrazioa izan da, hiru establezimendutik ia-ia batek – % 32k-; horren atzetik datoz Administrazio Zentrala, % 23,8rekin, autonomia erkidegokoa % 17,3rekin, eta toki administrazioa % 8,5rekin.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, ikusten denez, lautik hiruk tramite elektronikoak proportzio berean egiten dituzte foru administrazioekin eta estatukoarekin, % 40,9k autonomia-erkidegokoarekin, eta % 13,1ek tokikoarekin.

G.5.3.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012, 2015.%



Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

G.5.3.b Azken urtean Adminiztrazio Elektronikoa erabili duten 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduak, adminiztrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012, 2015.%



Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

TAB. 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015. %

	Establezimenduak. Guztira						10 lanpostu edo gehiagokoak					
	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	35,2	17,3	32,0	8,5	23,8	4,4	78,8	40,9	75,2	13,1	75,2	3,6
Informazioa lortzeko	24,8	14,6	21,0	7,8	8,2	4,0	68,6	33,6	57,7	11,7	43,1	2,9
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	23,3	12,5	19,6	5,9	6,1	3,2	67,2	30,7	59,9	8,0	40,9	0,7
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	15,0	8,3	12,9	4,4	5,2	3,1	62,0	22,6	54,7	8,0	33,6	0,7
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	7,3	3,7	5,1	0,8	1,5	0,4	25,5	12,4	21,2	2,9	8,0	-
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	2,2	0,9	1,1	0,1	0,4	0,2	14,6	5,8	9,5	2,9	2,2	-
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	20,1	-	-	-	19,9	0,2	68,6	-	-	-	68,6	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	16,5	-	14,9	-	1,7	0,2	64,2	-	61,3	-	5,8	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	17,9	-	16,9	-	1,1	0,2	68,6	-	67,9	-	2,2	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	1,6	-	-	-	1,4	0,2	15,3	-	0,0	-	15,3	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,5	0,4	1,0	-	0,2	0,0	3,6	0,7	1,5	-	2,9	0,7

Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP

Alde batetik, nabarmendu behar da lehen sektoreko establezimenduak distantzia handira daudela gainerako sektore ekonomikoetatik, administrazio publikoekin elkarreraginean aritzerakoan: gainerako sektoreek % 87,8ko tasa dute; lehenengoek, aldiz, % 35,2koa.


Tarte hori handiagoa da Administrazio Elektronikoa gehien erabiltzen diren tramiteetan: % 20,1ek hala deklaratzeko Gizarte Segurantzako kotizazioak, eta gutxi gorabehera % 17k hala kudeatzen du Sozietateen gaineko Zerga edo BEZa. Gainerako sektore ekonomikoetan hurrenez hurren % 56,7ra, % 62,9ra eta % 72,8ra heltzen ziren.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustiatzearen egoera oso diferentea da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta, eta ekonomiaren beste esparru batzuetara

hurbiltzen da. Enplegu-geruza berberarekin konparatuta, tartearen ehuneko 15,8 puntuetakoa da $-52,6$, tamaina kontuan hartu gabe. Azpimarratu behar da 4 puntura murrizten dela gizarte-kotizazioen aitortzearen eta 7,6ra Sozietateen gaineko Zergaren.

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduen artean gertatzen den jauzi azpimarragarria, lehenengo sektorearen eta gainerakoaren artean, prozedura bat osorik bitarteko elektronikoekin tramitatzean gertatzen da: % 25,5 lehenengoaren kasuan, eta % 64 bigarrenaren kasuan.

G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015.%




Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarte-erabileraren inkesta-ESIP

Azken urtean 114.000 pertsona gehiago izan dira Administrazio Elektronikoen erabiltzaile. Biztanleen heren handi batek, % 45,3k, leihatila elektronikoak erabili ohi ditu jada

2014ko⁴ azken 3 hilabeteetan eta 2015eko lehenengo hiruretan, EAEn bizi diren 16 eta 74 urteren bitarteko 725.800 pertsonak erabili dute administrazioek herritarrekin harremanak izateko eskaintzen dituzten aukeretakoren bat, hau da, guztizkoaren % 43,5.

Generoari dagokionez, antzemandako erabiltzaileen igoera ez da orekatua izan. Administrazio Elektronikoen erabileran izandako murrizketa portzentajezko 2,6 puntu negatibokoa izan da emakumezkoen dagokienez, hots, emakume erabiltzaileak % 44,1 izan dira.




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta –ESIF

Administrazio Elektronikoen erabiltzaileengan emandako hazkunde linealak, enpresen bilakaerarekin gertatzen den bezala, kausa komun bat edo gehiago egon daitekeela pentsatzera garamatza; internauten kopuruaren bilakaerak antzeko joerari jarraitzen diola egiaztatzeak hipotesi bat emateko bide eskaintzen digu, hau da, aipatutako bilakaera horien zioa izan daitekeela belaunaldi “digitalizatuak” jarduera ekonomikoetara baita Administrazio Elektronikoen erabilerara ere neurritz sartzen ari direla eta analfabetoak, berriz, trebetasun horietatik ateratzen ari direla.


⁴ 2003 eta 2008 urte artean, ESIFek informazioa biltzen duen urtearen 2. eta 4. hiruilekoetan eta, beraz, Administrazio Elektronikoen erabilerari buruzko erantzunerako hiruhilekoa inkesta egiten zen urtearen barruan sartzen zen (erabilerari buruzko galdeketa azken hiru hilabeteetan egiten da). 2009tik aurrera, informazioa urtearen lehenengo hilabeteetan biltzen da eta, beraz, erabileraren erreferentzia-epea aurreko urteko azken hiruhilabeteakoa izango zen. Kasu guztietan, inkesta egin den urtea utzi da. 2015an datu-bilketaren aldia lehenengo sei hilabeteetan egin zen, beraz erabileraren erreferentzia-epea 2014ko azken hiru hilabeteetan eta 2015ko lehenengo hiruretan bitartean kokatu behar da.

G.7 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2015. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2015. Δ%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

2005eaz geroztik, Administrazio Elektronikoaren erabiltzaileen hazkundeak gainditu egin du internautena. Baina, joera hori eten egin da 2010. eta 2011. urteen artean, lehenengoan kopurua % 2 baino ez baita hazi, eta internautena, berriz, % 8,4. Krisialdiaz gain, Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopurua % 4,3 jaistearen arrazoietako bat izan daiteke 2011. eta 2012. urteen artean internauten kopurua % 1,7 besterik ez dela hazi, 2003az geroztik izan den hazkunderik txikiena.

2014. eta 2015. urteen bitartean internauten kopurua igo da -80.000 gehiago- eta hori dela medio, e-administrazioaren erabiltzaileen zenbakiak % 18,6 handitu du.


Administrazio Elektronikoaren erabiltzaileek zein administrazio-motarekin duten harremana jakiteko, beharrezkoa da internautek 2015aren⁵ lehenengo sei hilekoan bisitatutako azken webguneen aipamenek ematen duten informaziora jotzea. Alde batetik, azpimarratu beharra dago web-mota guztiei egindako aipamenak kontuan hartuz, aipamenen % 13 administrazio-mota guztietako atari publikoei dagozkiela (2014arekin alderatuta, portzentajezko 2,2 puntuko beherakada izan da hor).

Edozein esparru espazialeko atari publikoei egindako bost aipamenetik lau -% 79- euskal administrazioei eta euskal sektore publikoari dagozkie, 2014arekin alderatuta 2,6 puntu galdu da.

Euskal administrazioen eta euskal sektore publikoaren webguneei egindako aipamenak bakarrik kontuan hartuta, EAEko Administrazio Orokorrari, bere erakunde autonomoei eta sozietate publikoei dagokie aipamenen % 62,8. Ehuneko horretatik, portzentajezko 25,2 puntu euskadi.eus atariari eta horri lotutako webguneei dagozkie, eta 37,7 puntu erakunde autonomoen eta sozietate publikoen web-ei.

Foru-aldundien atariak euskal sektore publikoko aipamen guztien % 16,1 hartzen dute -2014arekin alderatuta, portzentajezko 5,9 puntu gehiago- eta, udalenean, % 5,7. Unibertsitate Publikoari -UPV/EHUri- dagokio euskal atari publikoen aipamenen % 12,3 -2,9 puntu gehiago-. UNEDi gainerako % 2,3.


G.9 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten WEB gune publikoen aipamenak, administrazio-motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2015. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

⁵ ESIFen galde-tegiak jasotzen ditu bisitatutako azken 5 webguneak, erreferentziaz hartuta galdeketa egiten den unean. 2015an lehenengo sei hilabeteetan izan zen.

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko WEB guneen aipamenak.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2015. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

ENPRESEI ETA FAMILIEI ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ERABILERARI BURUZ EGINDAKO ESTADISTIKA-DOKUMENTU NAGUSIETARAKO ESTEKAK

[E-ADMINISTRAZIOKO KONTZEPTUEN GLOSATEGIA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -FAMILIAK-. IGIF](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. ESI ADMINISTRAZIOA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -LEHEN SEKTorea-. IGIL](#)